

KONTZESIO PERPAUSAK. ADITZ JOKATUGABEAK ADITZ JOKATU BIHURTU

Guk zuri dena ongi **azaldu arren**, zuk ez duzu ezer ulertu

Guk zuri dena ongi **azaldu DIZUGUN ARREN**, zuk ez duzu ezer ulertu

Nahiz eta guk zuri dena ongi **azaldu DIZUGUN**, zuk ez duzu ezer ulertu.

Guk zuri dena ongi **azaldu BADIZUGU ERE**, zuk ez duzu ezer ulertu.

Nahiz eta bakarrik **bizi**, nire amona ederki moldatzen da.

1. (- (e)n arren)
2. (Ba...ere)

Nik zu asko **ezagutuagatik**, txikitan beti harritzen ninduzun

1. (- (e)n arren)
2. (Nahiz eta ...- (e)n)

Loteria **erorita ere**, ez diot inoiz lan egiteari utziko

1. (Nahiz eta ...- (e)n)
2. (Ba...ere)

Beste taldekoek gure jokalaririk onena guri **lesionatu arren**, nola edo hala irabazi genuen txapelketa

1. (- (e)n arren)
2. (Nahiz eta ...- (e)n)

Nahiz eta horiek etengabe **saiatu**, ez gaituzte isilduko

1. (Nahiz eta ...- (e)n)
2. (Ba...ere)

Gu lagunak **izanagatik ere**, ez duzu hori egiteko eskubiderik

1. (- (e)n arren)
2. (Ba...ere)

Zuek aurpegia alaia **edukita ere**, barrutik oso triste zeundeten

1. (- (e)n arren)
2. (Nahiz eta ...- (e)n)

Ni goseak akabatzen **egon arren**, ez dut txokolaterik jango

1. (Nahiz eta ...- (e)n)
2. (Ba...ere)

Ni goseak akabatzen **egon arren**, ez nuen txokolaterik jan

1. (- (e)n arren)
2. (Ba...ere)

Petrolio-konpainiek jendeari gasolinaren prezioa **igota ere**, inork ez du kotxea utzi nahi

1. (- (e)n arren)
2. (Nahiz eta ...- (e)n)

Irakasleek ikasleei liburuak irakurtzeko **aginduagatik ere**, ikasleek ez dute irakurtzen

1. (Nahiz eta ...- (e)n)
2. (Ba...ere)

Nahiz eta nik zuri egia **esan**, ez zenidan inoiz sinesten

1. (- (e)n arren)
2. (Ba...ere)